

XIX. mendeko abertzaletasuna, XX. mendearen bezperetan

Eguna, 1986-10-23.

Askotan botatzen digute: abertzaleok erromantikoak garela.

Erromantizismotik gatoz, bai; baina ez euskal abertzaletasuna bakarrik, baita bihotza eta imajinazioa bide direla XIX. mendean sortu ziren pentsa-moldeak eta gizona ukitu zuten beste arazoak ere. Zer besterik izan zitekeen karlismoa eta, beraz, Iparragirre eta karlismoari zentzu argia ematen jakin zuen Txaho?

Agustin Txaho, Tardetsen jaio zen 1811ko urriak 10 zituela; garai hartako gure herriaren eskolabide bakarra hartzen du: Seminarioa. Eta, kasu honetan, herritik kanpo, gainera, Biarnoko Oloronen. Gero, Iparraldeko kultur-legeen menpe, Parisa joan eta han idatzi zituen bere lehen liburuak: *Azti-begia* euskaraz (1834) eta beste batzu frantsesez, Euskal Herria eta euskara gai dituela; erlijioaz ere idazten du. Baina, gure gaurko eginkizunerako gaia zuberotar honen *ideologia* denez gero, esan dezagun Justo Garaterekin batera, lehen sozialista izateaz gainera, lehen eusko abertzalea izan zela, karlisten laguna; Eugene Goihenetxek eransten dio honi; iraultzailea ere izan zela, eta antiklerikala eta antikapitalista.

Txahok badaki (sentitzen du, hobe) karlistak ez direla don Carlos-en alde borrokatzen ari, honen bitartez gorde ahal izango dituzten *Foru nagusiak* eta *euskal nortasuna* defendatzeagatik baizik. Zumalakarregirekin 1835ean elkarrizketatu zela egia den ala ez, erromantiko batentzat ez da garrantzitsuena, Txahok berak dituen galdera aberkoiei erantzuteko, Zumalakarregik don Carlos-i esan ziezaizkiokeenak baizik: "Jauna, ez ahaztu, zure kausa defendatzerakoan, nire helburu nagusia gure probintzien Foru zaharrak gordetzea dela. Zure asabek bezala, zure herriez esklabuen arraza egin nahi bazenu, neu izango nintzateke lehenengoa, ez ezazula ahaztu, Errepublika proklamatu eta nire anaiei federazio iberiarra predikatuko niekeena".